

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako Udalaren osoko bilkuraren 2020ko uztailaren 8ko erabakiaren laburpena; horren bidez, 2020an zehar kultura jarduerak finantzatzeko dirulaguntzen deialdi publikoa egiten da

DDBN(Identif.): 515477

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>)

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/515477>)

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kultura elkarte eta entitate publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, sozietatearen egoitza Iruña Okan izanik edo jarduera udalerrri horretan eginik, legez eratuak edo erregistratuak badaude. Halaber, Udalerriko Elkarteen Erregistroan erregistratuta eta eguneratuta egon beharko dira.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde eta elkarteak, kultura xederik ez duten elkarte eta erakundeak eta ikasleen gurasoen elkarteak (IGE).

Salbuespen gisa, Kultura Batzordeak hala proposatzen duenean, Iruña Okatik kanpo dauden erakundeek jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta beren jardueraren zati handi bat udalerrian garatzen bada edo udalerrientzat interesgarri jotzen bada.

Salbuespen gisa, eta Kultura Batzordeak proposatuta, erregistratu gabeko pertsonak edo erakundeek eskuratu ahal izango dituzte laguntzak. Dirulaguntzen deialdi hau alde batera utzita, Kultura Batzordeak kontuan hartzen ditu udalerritik kanpoko elkarteek aurkeztutako proposamenak, eta, egoki iritiz gero, udalaren kultura-programazioetan sartzeko dituzte.

Bigarrena. Xedea

Aurrekontu mugak errespetatuz, kultura jardueren gastuak finantzatzen laguntzea, hain zuzen ere elkarte eta entitateek 2020. urtean Iruña Okan sustatzen dituztenak edo udalerrientzat interesgarri jotzen ahal direnak.

Hirugarrena. Oinarri arauak

Iruña Okako udalbatzak 2020ko uztailaren 8ko erabakiaren bidez onetsita, udalaren web orrian argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzen baturak ezin izango du inola ere 7.250,00 euroko zenbatekoa gainditu eta Iruña Okako Udalaren 2020rako aurrekontuaren 334.481.000 partidaren kontura emango dira.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak, zazpigarren oinarrian adierazten den dokumentazioarekin batera, 2020ko irailaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira. Deialdi hau udalaren iragarki taulan eta ALHAOn argitaratuko da.

Iruña Oka, 2020ko uztailaren 8a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ